

**Espainiako Turismo Kalitaterako  
Institutua (ICTE)**



# SARS-CoV-2 koronabirusaren kutsapena murrizteko neurriak



**MUSEOAK ETA ONDAREZKO  
TOKIAK**

**Ildoak eta gomendioak**



**ICTE institutuak eraturako Teknikarien Batzordeak egin du lan hau, Monumentuen eta Lekuen Nazioarteko Kontseiluaren (ICOMOS) Espainiako Batzorde Nazionalarekin, MACBArekin, MUSACekin, MARQekin, MuBBIrekin, Museu de les Ciències Príncipe Felipe museoarekin, Giza Eboluzioaren Museoa – Atapuerkako Aztarnategiarekin, Lazaro Galdiano Museoarekin, Lorcako Erdi Aroko Museoarekin, Sofia Erregina Arte Zentroaren Museo Nazionalarekin eta Thyssen-Bornemisza Museo Nazionalarekin lankidetzan, eta Espainiako Laneko Prebentzio Zerbitzuen Elkartearekin (AESPLA), PRLInnovación elkartearekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin adostu da.**

**Estatuko Turismo Idazkaritzak, autonomia-erkidegoek eta Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak (FEMP) koordinatu dute.**

## AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA.....</b>	<b>4</b>
<b>1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.....</b>	<b>4</b>
<b>2. KONTSULTARAKO ARAUAK.....</b>	<b>4</b>
<b>3. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK.....</b>	<b>4</b>
3.1    COVID-19a	
3.2    Arriskua	
3.3    Arriskuaren kudeaketa	
<b>4. ARRISKUA KUDEATZEKO BETEKIZUNAK.....</b>	<b>5</b>
4.1    Betekizun orokorrak	
4.2    Kudeaketa Batzordea	
4.3    Baliabide materialak	
4.4    Museorako neurri orokorrak	
4.5    Langileentzako babes-neurriak	
4.6    Informazio-neurriak	
<b>5. ZERBITZUAREN BETEKIZUNAK.....</b>	<b>11</b>
5.1    Bisitariak hartu eta artatzea	
5.2    Informazioa eta komunikazioa	
5.3    Sarreren erreserba eta salmenta	
5.4    Bisita	
<b>6. INSTALAZIOEN BETEKIZUNAK.....</b>	<b>13</b>
6.1    Erakusketa-guneak	
6.2    Atsedeen-guneak	
6.3    Merkataritza-gunea	
6.4    Komunak	
6.5    Bestelako eremuak	
<b>7. GARBIKETARAKO BETEKIZUNAK.....</b>	<b>15</b>
7.1    Garbiketa- eta desinfekzio-plana	
<b>8. MANTENTZE-LANEN BETEKIZUNAK.....</b>	<b>16</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>17</b>
<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>18</b>

## 0. SARRERA

Turismoa da gure herrialdeko industria nagusia. Alabaina, COVID-19aren testuinguru honetan, protokoloak ezarri behar dira nahitaez, instalazio eta zerbitzu turistikoak berriro irekitzeak komunitatea kutsatzeko arriskua areagotu ez dezan. Halaber, beharrezko babes-neurriak ezarri behar dira sektoreko langileentzat. Hori dela-eta, Estatuko Turismo Idazkaritzak COVID-19ari kontra egiteko osasun-protokolo bakarra koordinatzea hitzartu du autonomia-erkidegoekin, konfinamendu-neurriak leundu ahala turismo-sektorea berriro irekitzeko modua prestatze aldera. Turismoaren azpisektore edo jarduera bakoitzaren betekizunak jasotzen dituen protokolo homogeneo hau egiteko, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren (ICTE) laguntza jaso da. Bada, museoetara eta ondareetara tokietan haien antolakundeetan arriskuak identifikatzen eta aztertzen laguntzeko xedez garatu da tresna hau, bai eta zerbitzuan, instalazioetan eta langileen artean birusari aurre egiteko jarduerak onenak ezartzen laguntzeko asmoz egin ere.

## 1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Indarreko legedia alboratu gabe, museoek eta ondareetara tokietan ezarri beharreko ildok eta gomendioak biltzen dituen dokumentu honek<sup>1</sup>, berriro irekitzeko orduan SARS-CoV-2 birusa kutsatzeko arriskuak gutxienekoak izan daitezkeen.

Gobernuak argitaratzen duen egutegiaren edo etorkizunean egutegi horretan egin daitezkeen aldaketen arabera hasiko dira zerbitzuak funtzionatzen.

## 2. KONTSULTARAKO ARAUAK

Sukaldaritza-zerbitzuetan COVID-19ari aurre egiteko higie- eta osasun-arloko neurriak (ICTE, 2020).

## 3. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK

### 3.1 COVID-19a

COVID-19a SARS-CoV-2 koronabirusak sortzen duen gaixotasuna da (birusa 2019ko abenduan hauteman zen lehen aldiz). Honako hauek dira gaixotasun horren sintoma ohikoenak: sukarra, eztula eta

---

<sup>1</sup>Dokumentu honetan, «museo» terminoa erabiliko da «ondareetara tokietan» biltzeko.

aire-faltaren sentipena. Dena dela, sintoma hauek ere izan ditzake: nekea, minak, muki-jarioa, eztarriko mina, buruko mina, beherakoa eta gorakoak. Batzuek usaimena edo dastamena galtzen dute.

(Osasun, Kontsumo eta Gizartearen Ongizaterako Ministerioa, 2020).

### 3.2 Arriskua

Norbait SARS-CoV-2 koronabirusarekin kutsatzeko aukera.

### 3.3 Arriskuaren kudeaketa

Antolakundea arriskuaren arabera zuzentzeko eta kontrolatzeko koordinatzen diren jarduerak.

(UNE-ISO 31000:2018)

## 4. ARRISKUA KUDEATZEKO BETEKIZUNAK

### 4.1. Betekizun orokorrak

Museoak arriskua kudeatzeko konpromiso irmoa hartu behar du, eta arrisku hori gutxitzeko neurrien ezarpen sistematikoa gidatu. Museoaren prozesu guztietan egon behar du arriskuaren kudeaketak, eta, beraz, askotariko prozesuek elkarrekin koordinatuta egon behar dute.

Museoak, arriskuaren ebaluazioan oinarrituta, kontingentzia-plan bat egin beharko du, eta, bertan, COVID-19arekin kutsatzeko arriskuak murrizte aldera hartuko dituen neurri zehatzak xehatuko ditu. Museoa jarduerara itzuli aurretik saiatuko da prebentzio-lan hau egiten. Legeak eskatzen duenez, prebentzio-ordezkarriak edo langileen ordezkariak kontsultatu beharko dira arriskuen ebaluazioa egiteko prozesuan eta horren ondoriozko segurtasun- eta osasun-protokoloak egitean, baina aipaturiko kontingentzia-plana enpresaren eta osasun- eta segurtasun-batzordearen artean adostea komeni da (edo, bestela, kudeaketa-batzordearekin adostea).

### 4.2. Kudeaketa Batzordea

Segurtasun eta Osasun Batzorderik ez duten enpresetan, enpresak arriskua kudeatzeko batzorde bat osatu behar du, langileen legezko ordezkariak barneratuko duena; edozein kasutan, batzorde horren kudeaketa eta zereginetan Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea (LAPL) beteko da uneoro.

Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko Legearen arabera egokitzen den subjektuak arriskuak identifikatu eta ebaluatu ondoren, batzordeak bere gain hartuko du COVID-19aren ondoriozko arrisku higieniko-sanitarioak murrizteko estrategiak zehazteko eta erabakiak hartzeko eginkizuna. Lantalde horrek estrategiak definitu eta

erabakiak hartuko ditu, COVID-19aren ondoriozko arrisku higieniko eta sanitarioak murrizte aldera.

Zehazki, batzordeak honako hauek egin beharko ditu:

- Jarraitu beharreko xedeak ezarri.
- Erabaki onenak hartzea ahalbidetuko dion informazioa biltzeko mekanismoak ezarri (kontsultak agintariei, langileen ordezkariari (egonez gero), enplegatuei, adituei eta abarri).
- Koordinatuko den modua ezarri (honako hauekin koordinatuko da: batzordekideekin, enplegatuekin, arlo bakoitzeko agintari eskudunekin eta hornitzaileekin).
- Koordinatuko den modua ezarri (honako hauekin koordinatuko da: batzordekideekin, langileen ordezkariekin, laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuarekin edo, halakorik egon ezean, museoak hautatutako prebentzio-modalitatearen arabera eginkizun horiek dituen pertsonarekin).
- Haiek ebaluatu eta ondorioak atera.
- Ondorio horiekin bat eginez, hainbat bilakaera-fase eta mugaketa jaso ditzakeen kontingentzia-plan bat diseinatu.
- Kontingentzia-planaren ezarpena planifikatu.
- Kontingentzia-plana ezarri, museoaren neurriaren eta konplexutasunaren arabera, eta planaren betetze-maila gainbegiratu, eraginkortasuna baloratzeko eta, beharrezkoa izatekotan, erakutsitako eraginkortasunaren arabera, plana aldatzeko.

Kontingentzia-plana zehazteko orduan, kontuan hartu behar dira desgaitasunen bat dutenen premiak.

Kontingentzia-planak, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu:

- Erabakiak hartzera zuzendutako prozesuak aldatzeko aukera egongo da, prozesuok aldatu beharra egongo balitz ere.
- Arriskuaren kudeaketaren arloko arduradunak eta erantzukizunak esleituko dira.
- Giza baliabideak eta bitarteko materialak esleituko dira, baita norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera zehaztu ere, laneko arriskuen ebaluazioaren ondoriozko premiei arreta jarritz, baina arau honetan nahiz laneko arriskuak prebenitzeko ezar daitezkeen araudian ezarritakoa bazter utzi gabe.
- Bezero edo langile batek COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia baldin badauka jarduteko protokoloa zehaztu eta ezarriko da, laneko arriskuak prebenitzeko ildoak eta osasun-agintarien ildoak jarraituz eta kutsatuta egon daitezkeen gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloak berrikusteko aukera jasoz.

- Osasun-agintariak COVID-19aren harira ematen dituzten gomendioen eta ildoen betetze-maila gainbegiratuko da, enplegatuei eta bisitariari dagokienez. Halaber, arriskuen ebaluazioaren ondoriozko kontingentzia-planean jasotzen diren neurrien betetze-maila begiratuko da.

### 4.3. Baliabide materialak

Museoak beharrezko ekintzak ezarri beharko ditu arriskuen ebaluazioaren emaitzaren eta diseinatutako kontingentzia-planaren arabera aurreikusitako baliabideez hornitzeko, betiere osasun-agintaritzen gomendioak kontuan hartuta.

Museoak kontuan hartu behar ditu bitarteko materialez hornitzeko orduan egon litezkeen murrizketak, baita murrizketa horien ondoriozko zerbitzu-mugaketak ere, eta, hala egokitzuz gero, hasieran proposatutakoez bestelako aukera egingarriak baloratuko ditu; beti ere, langileen legezko ordezkariarekin adostuta.

Uneren batean bitarteko materialak falta direla ikusten bada, kudeaketa-batzordeak gabezia hori aztertu eta erregistratuko du, museoa eta bertako enplegatuak eskudun agintarien aurrean babesteko. Horrelakoetan, bestelako bitartekoak eta neurriak aztertu nahiz proposatu ahalko dira.

### 4.4. Museorako neurri orokorrak

Museoak honako hauek egin behar ditu:

- Eginkizunak eta lan-prozesuak planifikatu beharko ditu, osasun-agintaritzek ezarritako segurtasun-distantzia bermatzeko moduan; beharrezkoa balitz, lanpostuen antolaera, pertsonak mugitzeko antolaketa eta lantokiko guneen antolamendua (altzariak, apalategiak, korridoreak, etab.) egokitu beharko dira. Egokitu ezin badira, kontaktu bidez kutsatzeko arriskua saihesteari begirako neurri alternatiboak hartuko dira. Lanean txandak baldin badaude, ahal baldin bada, txanda berdinetan langile berdinak elkartzeko moduan planifikatu behar dira. Era berean, langileek arropa aldatu behar badute, pertsonen arteko distantzia ziurtatzea ahalbidetuko duen tokia prestatu beharko da horretarako, edo langileen aldagelen gehieneko edukiera ezarri, aldagarik egonez gero. Gainera, barne-mailako bileretan, segurtasun-distantzia gorde beharko da.

- Lan-ingurunean COVID-19 gaixotasunaren aurrean ahula den langilerik dagoen ebaluatuko da, eta langile horientzako segurtasun-neurri espezifikoak zehaztuko dira.
- Ordutegia kontrolatzeko metodoa ukipenezkoa bada (hatz-marka, digituak) eta gailua desinfektatzen dela ziurtatu ezin bada, enplegatuek gainazal berbera ez erabiltzeko metodoen bat ezarri beharko da ordutegia kontrolatzeko. Gailua erabiltzen den aldiro desinfektatzea erabakitzen bada, soluzio desinfektatzaile bat egotea ziurtatu beharko da.
- Ziurtatu enplegatuen babesa egokia dela, eta erraztu eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzeko modua. Ezin bada, soluzio desinfektatzaile bat erabili.
- Higienarako jarraibideak zabaldu, lanpostuan (lanera sartu aurretik, lan egin bitartean eta lan egin ondoren) erabili beharreko higiene-arauei buruzko informazio oso, argi eta ulergarriarekin batera. Kartelen bidez egin liteke.
- Eskuak behar bezala garbitzeko denbora eta bitartekoak eman.
- Laneko arriskuak ebaluatu ondoren, NBE egokiak banatu. Zerbitzuren bat azpikontratatuta edukiz gero, langile horiek beharrezko NBEak (norbera babesteko ekipamendua) dauzkatela gainbegiratuko du museoak.
- Laneko instalazioak eta eremu partekatuak erabiltzeko arauak ezarri, segurtasun-distantzia mantentzeko (adibidez, igogailuetan, jangeletan, sarbide edo zonalde komunetan, aldageletan, bilera-geletan...).
- Egunero aireztatuko dira museoako askotariko eremuak.

Horretaz gainera:

- Jarduera guztietan errespetatu behar dira pertsonen arteko segurtasun-distantziak. Horretarako, eta beharrezkoa denean, edukierak kontrolatu beharko dira. Ezinezkoa bada, beharrezko neurriak eta ekipamenduak bermatu beharko dira.
- Laneko arropa 60°C-tan garbitu behar dela jakinarazi behar die museoak langileei.
- Maskarak, eskularruak eta erabiltzen dituzten NBEak behar bezala erabiltzeko eta zaintzeko trebatu behar dira langileak. Prestakuntza hori erregistratu beharko da.
- Museoak kontingentzia-plan bat zehaztu eta ezartzea eskatuko die bere instalazioetan zerbitzu ematen duten enpresa azpikontratatu eta emakidadunei. Kontingentzia-plan hori museoari eman beharko zaio, bi aldeak koordinatu daitezten eta horren segimendua egin dezaten. Azpikontrataturako enpresetako langileek beharrezko NBEak (norbera babesteko ekipamenduak) dauzkatela gainbegiratuko du museoak.



## 4.5. Langileentzako babes-neurriak

### 4.5.1 Betekizun orokorrak

Langileek diseinatu den kontingentzia-plana ezagutu behar dute, eta, zehazki, arriskuaren kudeaketaren esparruan dauzkaten erantzukizunen berri izan behar dute.

Zehazki, honako hauek dira langileen eginbeharrak:

- Informazio argi eta ulergarria eduki behar dute, eta txertatzen diren neurri espezifikoaren gaineko prestakuntza zehatz eta eguneratua jaso.
- Fisikoki elkar ukituz agurtzea saihestu behar dute, gainerako langileei nahiz erabiltzaileei dagokienez. Ahal dela, segurtasun-distantzia errespetatu behar da.
- Lanpostu bakoitzeko arriskuaren ebaluazioaren emaitzak aintzat hartu behar dituzte: maskara erabili behar den ala ez, eta, erabiltzekotan, nolakoa erabili behar den (higienikoa, kirurgikoa), lanaren arabera. Era berean, maskara mota bakoitza erabiltzeko denbora errespetatu behar dute.
- Erabili eta berehala bota behar dute norberaren higienarako edozein hondakin (bereziki, behin erabiltzeko zapiak), baita NBEak ere. Horretarako, taparekin babestuta dauden eta pedalarekin irekitzen diren zaborrontziak edo edukiontziak erabiliko dituzte.
- Eskuak sarritan garbituko dituzte urarekin eta xaboiarekin, edo, bestela, desinfektatzailearekin. Bereziki garrantzitsua da eztula edo doministiku egin ondoren edota kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu ondoren garbitzea. Hala ere, instalazioaren ezaugarrien arabera egokitu behar da eskuak garbitzeko protokoloa; adibidez, tokiaren ezaugarri fisikoak direla-eta, langileek eskuak aldizka garbitu ezin dituztenean. Horrelakoetan, soluzio desinfektatzailea erabiltzen dutela ziurtatu beharko da.
- Lanaldian zehar, askotan desinfektatu beharko dituzte haien gauzak (betaurrekoak, mugikorrak...); ahal bada, urarekin eta xaboiarekin, baina, bestela, soluzio desinfektatzaile batekin. Txanda aldatzean, berriz, lanpostuko elementuak (pantaila, teklatura, arratoia eta abar) desinfektatu beharko dituzte. Ekipo elektronikoak desinfektatzeko, produktu espezifikoak erabili behar dira, eta trapu edo zapi desinfektatzaile bereziekin igurtzi.

- Ez dira laneko ekipamenduak partekatu behar. Ekipo edo gailu jakin batzuk txandaka erabiltzen badira, gailuok erabileren artean garbitu eta desinfektatzeko garbiketa-jarraibideak ezarri beharko ditu museoak, kutsatzeko arriskua murrizte aldera.

#### 4.5.2 Garbitzaileentzako betekizun espezifikoak

Garbitzaileek arrisku-mailaren eta laneko arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera NBEa (norbera babesteko ekipamendua) eraili behar dute. Gutxienez, maskarak eta eskularruak erabili behar dituzte. Garbiketa egin ondoren, modu seguruan botako dituzte erabilitako materialak eta babes-ekipoak, arriskuen ebaluazioaren emaitzen eta diseinatutako kontingentzia-planaren arabera, eta, gero, eskuak garbituko dituzte.

Bizitza baliagarriaren eta erabiltzen diren baldintzen arabera deuseztatu behar dira eskularruak eta maskarak.

Zerbitzua azpikontratatuta edukiz gero, langile horiek beharrezko NBEak (norbera babesteko ekipamendua) daukatela eta ezarritako prozeduren arabera jarduten dutela gainbegiratuko du museoak.

#### 4.6. Informazio-neurriak

Langileen ordezkariari (baldin badaude) eta enplegatuei kontingentzia-planaren berri eman behar zaie, behar bezala abiaraz eta zaindu dezaten. Halaber, hornitzaileei eta bisitariari zuzenean eragiten dieten eta aplikatu behar dituzten neurriak zein diren adieraziko zaie (maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, segurtasun-distantzia gordetzea... izan daitezke neurriok).

Erreserba edo erosketari berretsi aurretik, zerbitzuaren baldintzen eta ezarritako prebentzio-neurrien berri emango dio museoak bisitariari, onar ditzan.

Museoan bertan, informazio-neurriek honako hau jaso beharko dute:

- Museoan ezarritako prebentzio-neurriari buruzko informazioa (adibidez, kontaktua saihesteko ateak irekita edukitzea, zerbitzu batzuk aldi batez etetea eta bisitarien jarraitu beharreko jarraibideak ezartzea (kartelak, megafonia)).
- Eremuen eta ekipamenduen edukiera, neurriak eta obra edo bitarteko jakin batek sor dezakeen interes berezia aintzat hartuta. Edukieren zehaztapenak eskudun administrazioak finkatutako ildoak jarraitu behar ditu.
- Segurtasun-distantzia errespetatzeko markak edo bestelako neurriak (adibidez, harrera-gunean, sarreretan...).

Kartelek atzerriko hizkuntza batean egon behar dute gutxienez (bisitarien jatorrizko herrialdeak kontuan izanik).

Museoak kontingentzia-planaren ondoriozko neurriak betetzeko orduan lagundu behar dutela esan behar die enplegatuei eta bezeroei, eta prebentzio- nahiz higijene-neurriei buruzko informazioa edota babes-materiala behar bezala erabiltzeko informazioa eman behar die.

Museoko kanpo-zerbitzuetako hornitzaileei prebentzio-arloan ezarri diren neurri aplikagarriei buruzko informazioa eman behar zaie.

## 5. ZERBITZUAREN BETEKIZUNAK

### 5.1. Bisitariak hartu eta artatzea

Honako prebentzio-neurri hauek bete behar dira:

- Bisitariak hartu eta artatzeko guneko eta bisitari-taldeen gehieneko edukiera zehaztu behar da.
- Gutxienezko segurtasun-distantzia errespetatzen dela ziurtatzeko beharrezko neurriak hartu behar dira. Bisitariak hartu eta artatzeko gunean segurtasun-distantziari eutsi ezin bazaio, langileek babestuta egon behar dute (adibidez, erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko hesi fisiko baten bidez edo maskararen zein pantailaren bidez).
- Pilaketak saihesteko distantzia-markatzaileak modu ikusgarrian finkatu behar ote diren aztertuko da, eta, baietz erabakiz gero, markatu egin beharko dira.
- Bisitari-kopurua eta museoaren tamaina aintzat hartuta, sarrerak kontrolatzeko sistemak zehaztu behar dira (adibidez, edukiera kalkulatzeko aurretiazko salmenta, sarreren salmenta, kamera termografikoa...).
- Bisitariak hartu eta artatzeko gunean, soluzio desinfektatzailea jarri behar da.
- Hainbat ibilbide jarraitzeko aukera egonez gero, iradokitzen dena seinaleztatuko da, pertsonen arteko kontaktua murrizteko xedez (esaterako, noranzko bakarra, sarrera eta irteera).
- Lineako salmenta sustatuko da, kontaktu fisikoa murrizteko helburuz. Halaber, txartelarekin edo bitarteko elektronikoen bidez ordaintzea bultzatuko da. Museoko zerbitzu guztiei dagokie neurri hori.
- Ukitzen den bakoitzean, saltokiko terminala (TPV) desinfektatuko da.
- Erakusmahaiak gutxienez egunero garbitu eta desinfektatu behar dira, bisitari gehiago edo gutxiago izan diren kontuan izanik.

- Hurbileko larrialdietako eta ospitaleetako edo osasun-zentroetako telefono-zenbakiak eduki behar dira.
- Laneko txanda hasi eta amaitzean, ekipo informatikoa eta bestelako edozein elementu (adibidez, telefonoa) garbitu eta desinfektatu behar dira.

Museoaren sarreran, alfonbra desinfektatzaileak jartzea komeni da.

## 5.2. Informazioa eta komunikazioa

Honako neurri hauek bete behar dira, biursa bisitarien artean kutsatzea prebenitzeko:

- Edukieraren berri eman behar da.
- Bisitariak bete behar dituzten prebentzio- eta higiene-neurrien berri eman behar da (kartelen edo bestelako bitartekoen bidez), eta, zehazki, museora sartzeko baldintzak jakinarazi behar dira.
- Bisitarien eskueran dauden liburuxkak dauden tokitik kendu behar dira. Liburuxkak banatzen badira, norberak bakarrik erabiltzekoak eman beharko dira.
- Informazio birtuala sustatuko da, kanal digitalen bidez (museoaren edo udalaren web-orrialdea, app-ak eta abar).

## 5.3. Sarreren erreserba eta salmenta

Ahal dela, sarrerek linean, telefonoz, aplikazioen bidez nahiz bestelako kanalen bitartez erreserbatzea eta erostea sustatuko du museoak, museoaren kontingentzia-planeko jarraibideak ezarri ahal izan daitezzen; batez ere, barruko ibilbideetako eta sarreretako edukierari dagokienean. Bisitarien kopurua eta ordutegiak kontuan hartu behar dira, eta, beharrezkoa bada, bisita-txanden araberako ordu-tarteak ezarriko dira.

## 5.4. Bisita

Bisita gidatuei dagokienez, museoak honako hauek zehaztu behar ditu:

- Talde bat eratu dezaketen pertsonen gehieneko kopurua; beti ere, eskudun agintariak gai honetan emandako xedapenak aintzat izanik.
- Bisita nola egingo den, ibilbidea zein izango den eta ibilbideak zein mugaketa izan ditzakeen. Horretarako, obra jakin batzuen aurrean geratzeko aukera egongo den, erabilgarri dagoen tokia zein den, taldea eratzen duten bisitarien kopurua zein den eta gida nahiz bisitariak babesteko neurriak zein diren hartuko da kontuan. Bisitan segurtasun-distantzia ziurtatu ezin bada, bisitariak eta gidak maskara erabili beharko dute.

Museoan audiogidak edo irratigidak erabiltzen badira, bezeroek haien entzungailuak erabiltzea sustatuko da, edo, bestela, behin erabiltzeko entzungailuak banatuko dira. Museoak ekipamenduak uzten baditu, erabili ostean desinfektatuko dira, eta inork ez ukitzeko toki batean gordeko dira.

## 6. INSTALAZIOEN BETEKIZUNAK

### 6.1. Erakusketa-guneak

Sakon garbitu ezin daitezkeen instalazioetara ezingo da sartu.

Jende askok erabiltzen dituen ekipamenduetan (adibidez, ukipen-pantailetan), horiek segurtasun-baldintzetan erabiltzeko neurriak ezarriko dira; hala nola:

- Erabili ondoren desinfektatu egingo dira.
- Pertsonak ukipen-gailuak ez ukitzeko gailuak erabiliko dira, eta, ondoren, desinfektatu.
- Eskularru-banagailuak jarriko dira.

Establezimenduak une oro ziurtatu behar du bezeroek segurtasun-distantzia errespetatzen dutela.

### 6.2. Atsedeen-guneak

Atsedeen-guneak antolatzeko orduan, pertsonen artean segurtasun-distantzia errespetatzen dela ziurtatuko da (altzariak bananduz, errespetatu beharreko tokiak markatuz...). Ezin denean, bisitariak maskara erabiliko dute.

### 6.3. Merkataritza-gunea

«Merkataritza-sektorean COVID-19ari aurre egiteko jarduera onen gida» ezarriko da (ICTE, 2020).

### 6.4. Komunak

Museoak honako neurri hauek bete behar ditu:

- Komunek eskuak lehertzeko paperaren banagailua edo esku-lehorgailua izan behar dute.

- Paperontziak eskuzkoa ez den eragingailu batekin ireki behar dira, eta barnean poltsa bikoitza ipini behar da. Sarri hustuko dira, erabileraren arabera.
- Komunetan, amaitzen diren produktuak (xaboia, paper-zapiak...) berriro jarri beharko dira.
- Paper-, gel- eta xaboi-banagailuak aldizka garbituko dira, erabilera-mailaren arabera.
- Kartelen edo pegatinen bidez, arnas-etiketa erabili behar dela edo bestelako prebentzio- eta higiene-neurri batzuk hartu behar direla jakinaraziko zaie bezeroei.

Komunetan segurtasun-distantzia mantentzen dela ziurtatuko da; hortaz, komunetako edukiera ez gaintzeko protokolo bat zehaztu behar da.

Maiatzaren 3ko SND/386/2020 Aginduaren arabera, guztiok erabiltzeko komunak egunean sei aldiz garbitu eta desinfektatuko dira gutxienez.

## 6.5. Bestelako eremuak

Museoak honako neurri hauek bete behar ditu:

- Igogailuetako gehieneko edukiera zehaztu behar da, eta bezeroei horren berri eman behar zaie (igogailurik egonez gero). Igogailuak familia-unitate edo talde ezberdinen artean ez partekatze araua aplikatuko da, baldin eta maskarak erabiltzen ez badira. Igogailuaren ondoan, soluzio desinfektatzailea jarriko da.
- Edoskitze-gelarik egonez gero, itxita egongo da, eta langileei eskatzen bazaie bakarrik irekiko da; nolahi ere, gela irekitzea eskatzeko prozeduraren berri eman behar zaie bezeroei. Erabili ondoren, museoko langileek desinfektatuko dute.
- Arropazaindegi-zerbitzuan (egonez gero), ez dira bezeroen arropak gordeko; motxilak eta bestelako osagarriak (adibidez, euritakoak) bakarrik gordeko dira, bisitariak museoak emandako poltsetan sartu ondoren.
- Armairuak baldin badaude, horiek segurtasun-baldintzetan erabiltzeko moduko prebentzio-, higiene- eta osasun-neurriak ezarriko dira (adibidez, bezeroek erabiltzeko paper-zapi desinfektatzaileak, soluzio desinfektatzailea armairuaren ondoan, bezeroentzako eskularruak eta abar).
- Tailerretan edo bisitariak esertzen diren bestelako jardueretan, pertsonen arteko distantzia gordetzeko neurriak ezarriko dira.

Funtsean hurrei gordetako tokiak garbitu eta desinfektatzeko maiztasuna ugazituko da, erabileraren arabera.

## 7. GARBIKETARAKO BETEKIZUNAK

### 7.1. Garbiketa- eta desinfekzio-plana

Museoak garbiketa- eta desinfekzio-plana egokituko du, arriskuen ebaluazioaren emaitza eta ekipamenduen nahiz eremuen erabilera aintzat hartuta. Garbiketa-planak, gutxienez, honako hauek jasotzea behar ditu:

- Garbiketaren eta errebasoen maiztasuna areagotuko da; bereziki, gehien ukitzen diren tokietan (gainazalak, igogailuetako botoiak, komunak, ateen heldulekuak, merkataritza-gunea, beira-arakak, audiodidak eta abar), guztiok erabiltzeko eremuetan eta bestelako tokietan. Zehazki, enplegatuen lan-eremua (adibidez, erakusmahaia, kutxa eta abar) desinfektatuko da, txanda bakoitza amaitzen denean. Komunak egunean sei aldiz garbitu behar dira gutxienez.
- Establezimenduko askotariko eremuak gutxienez egunero aireztatuko dira, eta, ahal bada, gehiagotan.
- Egunean egindako garbiketak erregistratuko dira.
- Erabilera komuneko eremuetan dauden zaborrontziak segurtasun-baldintzetan hustuko dira: poltsak itxita egongo dira, eta hondakinak biltzeko gunera eramango dira.
- Merkatuan dauden eta Osasun Ministerioak baimendu nahiz erregistratu dituen desinfektatzaile biruzidak erabiliko dira. Produktu horiek erabiltzean, etiketako edota segurtasun-datuen fitxetako jarraibideak errespetatuko dira beti.

Gainazalak produktu desinfektatzaileekin garbitu behar dira.

Beharrezko garbiketa-neurriek lanaren plangintzan eta antolaketan zer-nolako eragina izango duten zehaztuko du kontingentzia-planak, garrantzi handia baitu testuinguru honetan.

## 8. MANTENTZE-LANEN BETEKIZUNAK

Bisitariak bertan daudela museoko instalazioetara sartu behar duten mantentze-lanetako langileentzako berariazko protokoloa ezarri behar da. Protokoloak alderdi hauek izan behar ditu gutxienez:

- Mantentze-lanetako langileek lanpostuko arriskuen ebaluazioaren emaitzak zehaztutako babes-baliabideekin babestuko dute haien burua.
- Laguntza edo konponketa amaitutakoan, langileek NBEak botako dituzte, kontingentzia-planean zehaztutako moduan. Ondoren, eskuak garbituko dituzte.

Aire girotuko sistema aldizka berrikusiko da; bereziki, iragazkien garbiketa.



## BIBLIOGRAFIA

[1] UNE 302002:2018 Museoak. Zerbitzua emateko betekizunak.

[2] UNE-ISO 31000:2018 Arriskuaren kudeaketa. Ildoak.

[3] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Turismo-sektoreko establezimendu eta langileentzako jarduera onen gida.

[4] Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioa (2020). COVID-19arekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura.


[5] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Merkataritza-sektoreko establezimenduetarako jarduera onen gida.

[6] Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako Kultura Ondarearen Institutua (2020). COVID-19aren ondoriozko krisia dela-eta kultur ondareak desinfektatzeko prozedurei buruzko gomendioak.

## I. ERANSKINA:

## OME-K ESKUAK GARBITZEKO EMAN DITUEN GOMENDIOAK

Nola **garbitu** eskuak?

 Prozedura osoaren iraupena: 40-60 segundo.



**0** Busti eskuak urarekin.



**1** Jarri esku-ahurrean eskuen azalera osoa estaltzeko adina xaboi.



**2** Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin.



**3** Igurtzi eskuineko esku-ahurra ezkerreko eskugainarekin, atzamarrek korapilatuz, eta alderantziz.



**4** Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin, atzamarrek korapilatuta dituzula.



**5** Igurtzi esku bateko atzamarren gainaldea beste esku-ahurrearekin, atzamarrei helduta.



**6** Igurtzi ezkerreko atzamar lodia eskuineko esku-ahurraren barruan, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



**7** Igurtzi eskuineko eskuko atzamarren punta ezkerreko esku-ahurraren kontra, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



**8** Eskuak uretatik pasatu.



**9** Lehortu behin erabiltzeko toalla batekin.



**10** Erabili toalla hori iturria ixteko.



**11** Zure eskuak seguruak dira.



Osasunaren  
Mundu Erakundea

Pazientearen segurtasuna

UNA ALIANZA MUNDIAL PARA UNA ATENCIÓN MÁS SEGURA

SAVE LIVES  
Clean Your Hands

## II. ERANSKINA: NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI.

### MASKARAK

Industria eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiaren apirilaren 23ko Ebazpenaren arabera, zeina COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erabiltzeari buruzkoa den, ekipamendu batek, jakinarazitako erakundearen EB ziurtagiria ez badauka (fabrikatzailearen adostasun-adierazpenarekin eta produktuari/ontziari CE markaketarako eskatzen zaion gainerako informazioarekin batera), merkatua zaintzeko agintaritzaren aldi baterako baimena beharko du salbuespenez hornitu/merkaturatu ahal izan dezaten (Ebazpenaren 1.2. zenbakia).

Oro har, behin erabiltzeko NBEak erabiltzea da gomendioa, edo, hala izan ezean, fabrikatzailearen gomendioei jarraikiz erabili ondoren desinfekta daitezkeenak erabiltzea.

NBEak hautatzean, erabiltzaileak ahalik eta gutxien gogaitzea eta gehieneko babesa ematea bermatu behar da, eta, horretarako, oso garrantzitsua da erabiltzaileari behar bezala egokituko zaizkion neurria, diseinua edo tamaina aukeratzea.

Agente biologikoari atek itxi nahi bazaizkio, ezinbestekoa da NBEak behar bezala jartzea, baina ondo jartzea bezain garrantzitsua da behar bezala kentzea, eremu kutsatuak ukitzea edota agente infekzioso hedatzea saihesteko.

NBEak modu seguruan bota behar dira, hondakinen edukiontzian (eta ez birziklatzekoetan) deuseztatuko diren poltsa itxietan.

#### **Maskarak**

COVID-19aren epidemiaren testuinguruan, lan-inguruneetan maskara higienikoak erabiltzea gomendatzen da (ez berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0064-1 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduko erabilera mugatua dutenak, edo berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0065 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduz erabili ondoren 60°C-tan garbitu behar direnak). Halaber, maskara kirurgikoak erabili ahalko dira (UNE-EN 14683:2019), nahiz eta hobe den horiek kutsatuta dauden edo COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia daukaten langileentzat gordetzea.

Nolanahi ere, oro har, SARS-CoV-2 birusak kutsatu ahal izan dituen pertsonak edo gainazalak daudelako zantzurik ez dagoen inguruneetan, ez da zertan maskararik erabili, baldin eta segurtasun-distantzia gorde ahal bada.

Kutsatutako jendea dagoen eremuetara sartuz gero, arnas-babeserako maskarak erabili behar dira (FFPII edo FFPIII motakoak); hala ere, haiengana bi metrora baino gutxiagora hurbildu ezean, ez da beharrezkoa izango. Bestetik, maskara dualak erabili ahalko dira, zeinek NBE-en lege-xedapenak nahiz produktu sanitarioen xedapenak bete beharko dituzten.

Maskarak erabili eta kendu bitartean, inolaz ere ez da haien kanpoaldea ukituko. Era berean, maskara ez da kopetan edo lepoan jarriko, eta, erabileren artean, ez da poltsikoan gordeko.

*Oharra: maskara kirurgikoak eta maskara higienikoak ez dira NBEtzat jotzen.*

## Maskara higienikoak biztanleria orokorrarentzat

Pertsona gehienek sintomekin hartzen dute COVID-19a beste pertsona batzuegandik. Hala ere, gero eta zantzu gehiagok pentsarazten dute sintomarik ez daukaten edo sintoma arinak daukaten pertsonek birusa transmiti dezaketela. Horregatik, biztanleria orokorrak zenbait inguruabarretan maskara higienikoak erabiltzea lagungarria izan liteke birusaren transmisioa txikiagotzeko.

**Horretarako, ezinbestekoa da maskarak ondo erabiltzea, prebentzio-neurriak kontuan hartuta, eta komunitateko transmisioa murrizteko neurriak betetzea:**



**Sintomak**  
badauzkazu, geratu etxean eta bakartu zaitez zure logelan.



**1-2 m**  
Gorde 1-2 metroko distantzia pertsonen artean.



**Garbitu eskuak**  
maiz eta arreta handiz.



**Ez ukitu**  
begiak, sudurra eta ahoa.



**Estali ahoa eta sudurra**  
ukondo tolestuaz ezul edo doministiku egitean.



**Erabili botatzeko zapiak.**



**Egin lan** urrutitik ahal duzun guztietan.

**Maskara higienikoak produktu ez-sanitarioak dira, ahoa, sudurra eta kokotsa estaltzen dituztenak eta buuruan edo belarrietan lotzen direnak.**  
Maskara higienikoak fabrikatzeko UNE zehaztapen teknikoak argitaratu dira:

- Berrerabilgarriak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))
- Erabilera bakarrekoak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))

**NORI gomendatzen zaio erabiltzea?**  
Biztanle osasuntsu guztiei.



**NON gomendatzen da erabiltzea?**

- Lanean, erosketetan, gune itxietan edo kalean segurtasun-distantzia gorde ezin denean.
- Garraio publikoa erabiltzen denean.

**Erabili ondo arrisku handiagorik ez sortzeko:**

-  Garbitu eskuak jantzi baino lehen.
-  Denbora guztian, maskarak ahoa, sudurra eta kokotsa estali behar ditu. Garrantzitsua da zure aurpegira egokitzea.
-  Ez ukitu maskara jantzita daukazu bitartean.
-  Erosotasun- eta higiene-kontuak direla-eta, gomendatzen da maskara 4 orduz baino gehiagoz ez erabiltzea. Hezeten bada edo erabileragatik narriatzen bada, ordezte gomendatzen da. Ez berrerabili maskarak berrerabilgarriak direla adierazten ez bada.
-  Maskara erantzeko, hartu atzeko aldetik, aurrealdea ukitu gabe, bota pertz itxi batean eta garbitu eskuak.
-  Maskara berrerabilgarriak fabrikatzailearen jarraibideekin bat etorri garbitu behar dira.

2020ko apirilaren 21ean  
Kontsultatu iturri ofizialak informazioa lortzeko.  
[www.mscbs.gob.es](http://www.mscbs.gob.es)  
@sanidadgob

**BIRUS  
HAULI  
ELKARREKIN  
GELDIARAZIKO  
DUGU**



GOBIERNO DE ESPAÑA  
MINISTERIO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

*Maskara higienikoak biztanleria orokorrean (Osasun Ministerioa, 2020)*

### III. ERANSKINA:

#### NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI: ESKULARRUAK

Babes-eskularruek EN- ISO 374.5:2016 araua bete behar dute. Binilozkoak edo nitrilozkoak izatea gomendatzen da, baina material gogorragoak erabil daitezke, egingo den jarduerak hala eskatzen badu. Eskularruek CE markaketa eduki behar dute.

Eskularruek babes-sentipen faltsua sor dezakete; beraz, oso garrantzitsua da eskularruak erabili aurretik eta ondoren eskuak ondo garbitzea (batez ere, kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu badira).

Eskularruak erabileraren arabera adierazitako maiztasunaz aldatu behar dira, fabrikatzailearen jarraibideei jarraikiz. Edonola ere, erabilera luzatu nahi bada, produktu garbigarri bat aplika daiteke haien gainean, baina, hondamen-zeinurik agertuz gero (zuloa, urradura eta abar), aldatu egin beharko dira.

Honako hau da eskularruak eskuak kutsatu gabe kentzeko modu egokia:



*Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuetarako prozedura*

*(Osasun Ministerioa, 2020)*

*Ikas ezazu behin erabiltzeko eskularruak arriskurik gabe kentzen*

*(Erizaintzako Elkargoa, 2020)*

## IV. ERANSKINA:

### LANGILE INFEKTATUEKIN EDO ARRISKUDUN LANGILEEKIN NOLA JOKATU

COVID-19aren inguruko oinarrizko ezagutzak, prebentziorako aintzat hartu beharrekoak:

- Honako hauek dira COVID-19aren sintomak: eztula, sukarra eta arnasteko zailtasuna, baina, batzuetan, baita giharretako eta buruko mina ere.
- Kasuen % 80k sintoma arinak daukate, eta inkubazio-aldia 2-14 egunekoa da. Kasuen % 50 kutsapen-egunetik 5 egunera hasten dira sintomak izaten.
- Langile bat gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak edukitzen hasten bada, berehala jarriko da harremanetan autonomia-erkidegoak horretarako jarri duen telefono-zenbakiarekin edo dagokion osasun-zentroarekin, eta enpresari jakinaraziko dio. Sintomatologia lanpostuan hasten bada, berehalako arduradunari esango dio. Bestalde, establezimenduak prebentzio-zerbitzuari jakinaraziko dio, halakorik baldin badago, neurri egokiak har ditzan eta Osasun Ministerioak ezarritako jakinarazpen-betekizunak bete ditzan.
- Enpresak, berriz, infektatuta egon daitezkeen pertsonak edo infektatuekin kontaktuan egon diren pertsonak detektatuz gero jarduteko protokolo bat egin eta aplikatu behar du, «Sars-CoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» deiturikoari jarraituz.
- Langile batek, Osasun Ministerioaren gomendioen arabera, izan haurdun dagoelako, patologia kronikoak dauzkalako edo adinekoa delako, «arriskudun pertsonaren» profila baldin badu, prebentzio-zerbitzuak bere lanpostua berrikusiko du, bere lana telelan bidez egin ezin denean «prebentzioz bakartzea» gomendatu behar ote den balioesteko, lehen adierazitako prozedurari helduz.

## V. ERANSKINA: SEGURTASUN-DISTANTZIA

«SARSCoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketaprozedura» izenekoak (Osasun Ministerioa, 2020) 2 metroko segurtasun-distantzia ezartzen du.

## VI. ERANSKINA: GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-

### PRODUKTUAK: BIRUZIDEN ZERRENDA

Esteka honetan kontsultatu dezakezu baimendutako produktu biruziden zerrenda osoa:

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA**

**DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO**